

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GUGGENHEIM BILBAO 1999-2007 MUSEOA FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioaren (Fundazioa) 1999tik 2007rako ekitaldietako txostena mamitu du. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik bik desadostasunezko boto partikularra egin duten eta kideetatik hiruk baterako boto partikularra.

Fiskalizazio txostenak legezkotasuna berrikusten du ondasun eta zerbitzuen kontratazio gaietan, jasotako diru-laguntza gaietan eta baita, ezargarri diren bestelako legezko arauen ezarpena ere. Halaber, urteko kontuak ezargarriak zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatu da.

Legezkotasunaren atalean Epaitegiak Fundazioaren jarduerari buruzko informazioa eman du eta bertan, bialdi bereizi ditu; honela, bada, 1999tik 2001era bitarteko aldiari dagokionez ezinezkoa dela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia bete izanari buruzko iritzirik plazaratu dio, txostenean jasotako zenbait mugaketaren ondorioz, 2002tik 2007ra bitarteko aldiari, berriz, aipatutako legezko arautegia zuzentasunez bete dela dio, nahiz iritzi honi txostenean zehaztu diren hainbat mugaketa egin zaizkion.

Zehatzago, 1999tik 2001erako lehenengo aldiari ezin egiaztatu izan da berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direla 20 pertsona kontratatzekeko prozesuan; berebat, epe horretan zehar izapidetu diren ondasun eta zerbitzuen kontratazio espedienteak ere ez dira eskura izan.

Halaber, 2002tik 2007ra bitarteko bigarren aldiari ez dira berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde pertsona baten kontratazioan; eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, hainbat espedientetan ez da bete edo mugatu egin da publizitatea eta lehia.

Fundazioaren Urteko Kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du bederatzi ekitaldietan horien aurkezpen eta edukiari dagokionez eta txostenean jaso diren hainbat salbuespen egin ditu; adierazgarriena, 2002ko ekitaldiko urteko kontuek 6.200 mila euroko dibisen gaineko aukerei buruzko informaziorik ez jasotzea izan da, ekitaldi horretan izenpetu eta abenduaren 31n iraungitzeke zeudenak; eragiketa horiek azkenean, 2003an 885 mila euroko galera ekarri zuten aukera horietako bat gauzatzeagatik, gainerakoa Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Ukanduna, SLri laga zitzaiola.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri, desadostasunezko boto partikularra eta baterako boto partikularra osotasunean txertatu zaizkio.